

## Idazle gazteak

Euskararen Udal Patronatuak Koldo Mitxelena Donostiako Eskolarteko Literatur Lehiaketa deitu du. Aurtengoa hamaigarren aldia izango da. Poliki-poliki gure artean sustraitzen ari den lehiaketa honek aukera ederra eskaintzen die Donostiako ikastetxeetako umeei eta gazteei beren idazketa eta marrazketa trebezia erakusteko.



Argazkian, iazko irabazleak.

Koldo Mitxelena lehiaketan Donostiako 6 eta 18 urte bitarteko ikasle guztiak parte har dezakete. Sariak bost ataletan daude banatuta: Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte), bigarren zikloa (8-10 urte), hirugarren zikloa (10-12 urte), Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloak (12-16 urte) eta LOGSE Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (16-18 urte). Modalitateak, berriz, honako hauek dira: olerkia, ipuina, bertsoa, komikia, antzerki gidoia eta gutuna. Epaimahaia Antton Olariaga komikigileak, Pello Añorga ipuin kontalariak eta Joxerra Garzia, Maria Asun Landa eta Inazio Mujika idazleek osatuko dute.

### Apirilak 2, azken eguna

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek azkar ibili beharko dute. Izan ere, lanak aurkezteko epea apirilaren 2an bukatuko da. Sari banaketa, bestalde, ekainaren lehen asteburuan egingo da.

Lehen esan bezala, Euskararen Udal Patronatuak antolatutako lehiaketak arrakasta lortu du Donostiako haur eta gazteen artean. Patronatuak emandako datuen arabera, hamaika urteotan 60 bat ikastetxetako 7.000 haur eta gazteak parte hartu dute. Iaz, esaterako, 727 parte hartzaile izan ziren. "Lehiaketa, oro har, oso tresna erabilgarria da ikastetxeetan bertan literatur sormena, idazketa eta irakurketa txikitatik lantzeko", dio Euskararen Udal Patronatuak.

## Unibertsitari zintzoak



Unibertsitariak, parrandak eta alkohola elkarri lotuta ageri dira askotan. Ez omen da egia. Horra hor Xabier Zupiria Donostiako Erizaintza Eskolako irakasleak Gara egun-

karian martxoaren 9an esandakoa: "unibertsitariak beste gazte batzuek baino gutxiago edaten dute". Mitoa lurrera bota du Zupiriak!

Erizaintzako irakasleak ikerketa egin du EHUren Bizkaiko campuseko 5.000tik gora ikasleren artean eta emaitzen arabera, %10ak ez du alkoholik edaten, %27ak edateko ohitura du eta gehienek, %63ak, noizean behin edaten dute. Zupiriaren esanetan, unibertsitarien artean ezberdintasunak daude. Esate baterako, Medikuntzan edo Ingenierutzan beste fakultate batzuetan baino gutxiago ematen omen diote zurrutari.

Salamancako unibertsitatera joandako "estudiante tunante" eta parrandazaleaz hitz egiten digu euskal kantuak. Egungo unibertsitariak, ordea, zintzo-tzen hasiak direla dirudi.

## Zaharberritze proiektuak Loiolan eta Altzan

Udalak dirulaguntzak eskatu dizkio Eusko Jaurlaritzari, Loiolan eta Altzan hainbat berritze proiektu eta azpiegitura egiteko. Egitasmo hauekin zenbait esparrutan esku hartzeko asmoa dago eta guztira, 3.436 milioi pezeta bideratu nahi dira, 1.662 milioi Loiolarentzat eta 1.764 Altzarentzat. Udalak dirutzaren erdia Eusko Jaurlaritzak jartzea nahi du, Izartu egitasmoaren bidez. Izan ere, egitasmo

honetan Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen dizkie egoera kaxkarrean dauden inguruei.

Odon Elorza alkateak eta Maria San Gil Ekonomia Garapen, Enplegu eta Merkataritza zinegotziak joan den asteartean, hilak 13, Izarturen laguntzetarako aurkeztu diren proiektuen berri eman zuten: "Udalerrri askok eskaerak egingo dituzte, baina gurek arreta merezi dutela

uste dugu", adierazi dute bi agintariek.

Loiolan egin nahi diren proiektu batzuek Urumea dute ardatza. Ibaia bideratu eta inguruetan parkea egin nahi da, eta era berean, ibai ertzean pasealekua egiteko eta Atari Eder plaza berritzeko asmoa dago. Horrez gain, auzoan bertan zenbait berrikuntza egin eta eurria jasotzeko sistema bat jarriko litzateke, besteak beste.